

Gipuzkoako museoei zuzendutako diru-laguntzak

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Gipuzkoako lurralde eremuko eta jabetza publiko zein pribatuko museoetarako diru laguntzak lehiaketa publikoz ematea, museo horien eginkizunak garatzera bideratutako dinamizazio, kudeaketa eta egokitzapen jarduerak sustatzeko asmoz.

Museo zentro gisa hartuko dira ondorengoak:

- Museoak (gizartearen eta horien garapenaren zerbitzura jendearentzat zabalik dauden erakunde iraunkorrak; gizateriaren testigantzen eta horien ingurunearen ikerketak egiten dituztenak eta horiek eskuratzen, zaintzen, jakinarazten eta jendearentzat ikusgai jartzen dituztenak, ikerketa, hezkuntza eta gozatzea helburu izanik).
- Erakusketa iraunkorrak edo bilduma museografikoak; deialdi honi dagokionez, museoetako berezko baldintza guztiak bildu gabe, jendearentzat modu iraunkorrean, koherentean eta ordenatuan ikusgai dauden kultur ondasunen multzo iraunkorrak izango dira. Ordulegi malgua eta ohikoa izango dute eta ikerlariarentzat sarbidea erraztuko dute. Gainera, ondasun horiek babestea eta kontserbatzea bermatu ahal izateko oinarritzko arretak eskainiko dizkiete bertako funtsei.
- Historiarekin, artearekin, arkeologiarekin, etnografiarekin eta abarrekin lotura duten ondare intereseko multzoak, horien helburua multzoa osatzen duten elementuak babestea, ikertzea eta hedatzea bada, jatorrizko teknikak eta erabilerak berreskuratzeari garrantzi berezia emanez.

Nork tramitatzen du

- KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DPTUA.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia
- Gordailua eta Museoen Zerbitzua

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Agiri eta ereduetara sarrera](#)

Internet bidezko eskaera

[Sakatu izapidetzara joateko](#)

Zuzeneko arretarako bulegoak

[Informazio eta Erregistro bulego orokorrak](#)

INFORMAZIO OSAGARRIA

Informazio gehigarria

[Informazio zehatza](#)